Udalaren izenean dauden jabari higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak ez dira zerga honen menpe egongo, baldin eta obraren jabea udala bera bada.

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponde a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsiko dira Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatu eta Toki Erakundea jabetzat duten edozein eraikuntza, instalazio edo obra, baldin eta, haien baitakoa izanik, zuzenean bide, trenbide, portu eta aireportuetarako, obra hidraulikoetarako, eta herriak eta hondakin urak garbitzeko badira, nahiz eta erakunde autonomoak arduratu haiek kudeatzeaz, hala eraikuntza berriak egiteko nola daudenak zaintzeko obrak izan.

Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, El Estado, o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de construcción nueva como de conservación.

### III. SUBJEKTU PASIBOAK

### III. SUJETOS PASIVOS

#### 6. artikulua.

#### Artículo 6.

1.- Honako hauek ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Foru Zergari buruzko Arau Orokorraren 35. artikulua aipatu eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten direneko ondasun higiezinaren jabeak, obren jabeak baldin badira; gainerako kasuetan, obraren jabea denari iritziko zaio zergadun.

1.- Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el art. 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, propietarias de los inmuebles sobre los que se realicen las construcciones, instalaciones u obras siempre que sean dueños de las obras; en los demás casos se considerarán contribuyente a quien ostente la condición de dueño de la obra.

2.- Udal Administrazioaren aurrean fede emanaz frogatzen ez bada obraren jabea ez dela obra egiten den higiezinaren jabea, beste pertsona edo entitate bat baizik, arduraduna higiezinaren jabea dela ulertuko da.

2.- Salvo que se acredite fehacientemente ante la Administración tributaria municipal que la condición de dueño de la obra recae en persona o entidad distinta del propietario del inmueble sobre el que aquélla se realice, se presumirá que es este último quien ostenta tal condición.

#### 7. artikulua.

#### Artículo 7.

1.- Zergadunaren ordeko subjektu pasibo iritziko zaio dagozkion lizentziak eskatu eta eraikuntzak, instalazioak

1.- Tienen la consideración de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las

edo obrak egiten dituenari, zergaduna bera ez bada.

2.- Nolanahi ere, Udal Administrazioak zergadunaren ordezkoiari exijitu ahal izango dizkio pertsona edo entitate zergadunaren identitatea eta helbidea.

#### IV. ZERGA-OINARRIA

##### 8. artikulua.

1.- Zerga-oinarria subjektu pasiboak edo kondizio hori duenak bere gain hartzen duen eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreala eta efektiboa izango da.

2.- Aurreko zenbakian erabakitakoaren ondorioetarako, interesdunek aurkeztutako exekuzio materialaren aurrekontua hartuko da kontuan, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi badu.

3.- Aurreko idatz-zatian adierazitako ezaugarriak betetzen duen aurrekonturik ez bada, bai eta arauzko lizentziarik lortu ez duten eraikuntza, instalazio eta obraren kasuan ere, zerga-oinarria udal teknikariek erabakiko dute, baietsitako proiektuaren arabera.

#### V. ZERGA-KUOTA

##### 9. artikulua.

Zerga-oinarriari eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

#### VI. SORTZAPENA

##### 10. artikulua.

Eraikuntza, instalazio edo obra hastean bertan sortzen da zerga, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

#### VII. KUDEAKETA

##### 11. artikulua.

Aginduzko lizentzia ematean, behin-behineko likidazioa egingo da; zerga-oinarria doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, baldin eta aurrekontu hori dagokion elkargo ofizialak ikuskatu badu; hala ez bada, edo lizentzia lortu ez bada, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmorako kalkulaturako kostuaren arabera.

##### 12. artikulua.

Lizentzia eman eta gero lehen proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko

correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras, si no fueran los propios contribuyentes.

2.- En todo caso, la Administración Municipal podrá exigir al sustituto del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostenta la condición de contribuyente.

#### IV. BASE IMPONIBLE

##### Artículo 8.

1.- La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción instalación u obra.

2.- A efectos de lo dispuesto en el número anterior se atenderá al presupuesto de ejecución material presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiere sido visado por el Colegio Oficial Correspondiente.

3.- En el supuesto de inexistencia de presupuesto con las características indicadas en el apartado anterior así como en el caso de construcciones, instalaciones y obras para las que no se haya obtenido la preceptiva licencia, la base imponible será determinada por los técnicos municipales de acuerdo con el estimado proyecto.

#### V. CUOTA TRIBUTARIA

##### Artículo 9.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

#### VI. DEVENGO

##### Artículo 10.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

#### VII. GESTION

##### Artículo 11.

Cuando se conceda la licencia preceptiva se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

##### Artículo 12.-

Si concedida la correspondiente licencia se modificara

beste likidazio bat egiteko.

### 13. artikulua.

1.-- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta haien benetako kostua ikusi ostean, Udal Administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den zerga-oinarria, eta behin betiko likidazioa egingo du, subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2.-- Aurreko atalean ezartzen denerako, obra bukatu edo berau behin-behinerako hartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, egoera hori adieraziko da Udal Administrazioak emango duen inprimakian, eta horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikustatua, hori egin ahal denean, eta bertan obren kostu osoa egiaztatut beharko da.

### 14. artikulua.

Zerga likidatzeko, administrazioaren isiltasun positibo bidez emandako baimenek espresuki emandako baimenen eragin berbera izango dute.

### 15. artikulua.

Ordenantza honetan araututako zerga hau likidatu, bildu eta ikuskatzeko, eta zerga urratzeak kalifikatu eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorrak erabakitzeko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aplikatuko da.

### 16. artikulua.

Baldin eta lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea erabakitzen badu idatziz espresuki adieraziz, Udalak behin-behineko likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko.

### 17. artikulua.

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko, titularrak berritza eskatu eta Udalak baimenik ematen ez badu.

## VIII. HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

### 18. artikulua. Hobariak.

a) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga kuotaren %95 arte, interes bereziko edo udal onurako izendatuta daudenean, egoera sozial, kultural edo historiko -artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udalbatzak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen

el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

### Artículo 13.

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras

### Artículo 14.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

### Artículo 15.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será la aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

### Artículo 16.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

### Artículo 17.

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

## VIII BONIFICACIONES Y EXENCIONES

### Artículo 18. Bonificaciones

a) De hasta el 95 por cien de la cuota del impuesto a favor de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal

gehiengo soilaren aldeko botoekin.

b) %90eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek pertsona ezinduen ibiltzeko eta bizitzeko baldintzak errazten dituztenean.

c) %95eko hobaria emango da eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezartzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obretarako. Dena dela, hobaria emateko, Administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak izan beharko dituzte beroa ekoizteko instalazioek.

#### 19. artikulua. Salbuespenak.

1 Eusko Jaurlaritzen menpekoak izan eta mantentzea Udalaren esku dagoen ikastetxe publikoetan egindako obrak salbuetsita egongo dira.

2 Aintzakotzat hartuko dira eta zerga ordaintzetik salbuetsi ahal izango dira ezbehar batek eragindako eraikinak lehengoratzeara edo eraberritzea subjektu pasiboak aurrez behar bezala egiaztatutako eskaera egin ondoren Ogasun Batzordearen eta Barne Erregimen aldeko diktamenarekin.

declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

b) Del 90% para las que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados

c) Habrá una bonificación del 95 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.”

#### Artículo 19. Exenciones

1 Estarán exentas las obras realizadas en Centros Docentes públicos dependientes del Gobierno Vasco, cuyo mantenimiento corresponda al Ayuntamiento

2 Tendrán especial consideración y podrá declararse exenta del pago del impuesto la realización de obras de rehabilitación o reconstrucción de edificaciones afectadas por un siniestro, previa solicitud debidamente justificada del sujeto pasivo y dictamen favorable de la Comisión de Hacienda y Régimen interno

ERANSKINA		ANEXO
Obra mota		Tipo de obra
Eraikuntza, instalazio edo obren tasa orokorra	% 5	Tipo general de construcción, instalación u obra
10 urte baino gehiago duten eraikinetan igogailua	% 0	Ascensor en edificios de más de 10 años
Fatxaden eta estalkien gaiberritze energetikoa	% 2,5	Rehabilitación energética de fachadas y cubiertas
Fatxadak eta teilatuak konpontzea	% 3	Arreglo de fachadas y tejados
Lokal komertzialak	% 3	Locales comerciales
Industria pabiloien birmoldaketa	% 4	Remodelación de pabellones industriales
Nekazal jarduerak eta landa eremuko etxebizitzak jarduerari lotuta	% 1,5	Actividades agropecuarias y viviendas en zona rural con actividad exclusiva
Landa eremuko etxebizitzak jarduerari osoki ez lotuta	% 4	Viviendas en zona rural con actividad no exclusiva

Tasa murriztuen ezarpena dokumentazio bidez egiaztatu beharko da

La aplicación de los tipos reducidos deberá acreditarse documentalente.

4

**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUTSEZKO ELEMENTUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

**I. XEDAPEN OROKORRAK**

*1. artikulua.*

Udal honek, Ondasun Higiezin gaineke Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion ahalmena erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako moldeetan finkatzen du zerga honen karga tasa.

**II. KARGA TASA**

*2. artikulua.*

1. Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga tasa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean finkatuko da.

2. Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gaineke Zergaren karga tasa ERASKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean finkatuko da.

**III. ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK**

*3. artikulua.*

Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gaineke Zergaren oinarria ondasun horien balio katastrala izango da.

Landa Ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezin gaineke Zergaren oinarria erregelamenduz onartutako balio katastrala izango da.

Zerga honen kuota honela zehaztuko da: aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriei ordenantza honetako 2 artikuluan ezarritako karga tasak aplikatuz.

**IV. KUDEAKETA ARAUAK**

*4. artikulua.*

1. Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz daiteke, udalbatzak erabakitako eran, edukian eta irismenean, horretarako dagokion hitzarmena izenpetuta.

2. Hartuko den udal erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAn emango da argitara, onartu ondoren.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.**

**I. DISPOSICIONES GENERALES**

*Artículo 1.*

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el artículo 14.3 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fija el tipo de gravamen de este impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.

**II. TIPOS DE GRAVAMEN**

*Artículo 2.*

1. El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza Urbana queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.

2.- El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza Rústica queda fijado en el tanto por cien que se indica en el ANEXO.

**III. BASE IMPONIBLE Y CUOTAS**

*Artículo 3.*

La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicada a los Bienes de naturaleza Urbana, estará constituido por su valor catastral.

La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica estará constituida por el valor catastral reglamentariamente aprobado.

La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el artículo 2 de esta Ordenanza.

**IV. NORMAS DE GESTION**

*Artículo 4.*

1. Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

2. El acuerdo municipal adoptado se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa una vez aceptado.

**V. BONIFICACIONES**



## V. HOBARIAK

### 5. artikulua.

Hobaria urtero eskatu beharko da, eta eskatu den urtean ez hurrengoan hasiko da eragina izaten. Ez du atzerako eraginik izango.

### 6. artikulua.

Zerga-kuota osoaren gaineko hobari bat ezarri da **familia ugarietako titularrentzat**, honako taula honen arabera:

—Familia ugari orokorra: %50eko hobaria.

—Familia ugari berezia: %90eko hobaria.

Zergaren irabazkinaren uanean familia ugariaren titulu ofiziala osatzen duten kide guztiak erroldatuta dauden etxebizitzetara ezarriko zaie hobaria.

Hobaria aplikatuko den etxebizitzaren gehieneko balio katastrala **124.848 €koa** izango da.

Etxebizitza jabetzan duten titularrei aplikatuko zaie, eta alokairuan izanik ere zerga ordaintzen dutela egiaztatzen duten haiei.

Hobaria jabetzan nahiz errentan dauden etxebizitzetara aplikatuko zaie. Etxebizitzak errentan daudenean interesatuek zerga ordaintzea beregain hartzen dutela egiaztatu beharko dute. Gainera, interesatuek indarrean dagoen errentamendu-kontratua aurkeztu behar dute.

Kontzesioa gauzatzeko, interesatuek ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- Familia ugariaren indarreko titulu ofiziala.
- Errentako etxebizitzaren kasuan, indarreko errentamendu-kontratua.

### 7. artikulua.

Zerga-kuota osoaren gaineko %25eko hobaria ezarri da, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren bidez araututako Etxebizitza Hutsen Programaren barruan utzitako ondasun higiezinatarako.

Interesatuek Etxebizitza Hutsen Programako ziurtagiri ofiziala aurkeztuta eskatu beharko dute hobaria.

### 8. artikulua.

Zergaren kuota osoaren %50era bitarteko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dauzkaten ondasun higiezinatarako. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki

### Artículo 5.

La solicitud de la bonificación se deberá hacer anualmente y surtirá efectos a partir del ejercicio siguiente a la fecha de solicitud y no podrá tener efectos retroactivos.

### Artículo 6.

Se establece una bonificación sobre la cuota íntegra del Impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de **titular de familia numerosa** según la tabla siguiente:

—Familia numerosa general: 50% de bonificación.

—Familia numerosa especial: 90% de bonificación.

La bonificación se aplicará a aquellas viviendas en las que, en el momento del devengo del impuesto, figuren empadronados todos y cada uno de los miembros que conforman el título oficial de familia numerosa.

El valor catastral máximo de la vivienda sobre el que se aplicará la bonificación será **124.848 €**.

Se aplicará a los titulares de vivienda en propiedad y aquellos que teniéndola en alquiler puedan acreditar que recae sobre ellos el pago del impuesto.

La bonificación se aplicará tanto a las viviendas en propiedad como a las arrendadas. En el supuesto de viviendas arrendadas, los interesados además deberán acreditar que el pago del impuesto recae sobre ellos. Los interesados deberán aportar, además, el contrato de arrendamiento en vigor.

Los interesados deberán instar su concesión aportando la siguiente documentación:

- Título oficial de familia numerosa en vigor.
- En el caso de viviendas en alquiler, contrato de alquiler en vigor.

### Artículo 7.

Una bonificación de hasta el 25% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del "programa de vivienda vacía" regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 316/2002, de 30 de diciembre.

Los interesados deberán instar su concesión aportando el justificante oficial del "Programa de Vivienda Vacía"

### Artículo 8.

Una bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones

behar dituzte.

para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente.

ERANSKINA		ANEXO
Higiezin ondasuna		Bien inmueble
Industri zorueta edo hirugarren sektoreko zorueta dauden ondasunak	% 0,40	Bienes urbanos situados en suelo industrial o terciario
Gainerako hiri ondasunak	% 0,188	Resto de bienes urbanos
Landalurrean dauden ondasunak	%0,80	Bienes situados en suelo rústico

5

**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA**  
- Udal koefizientea 2,0 (GAO 2011.12.23)

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS**  
- Coeficiente municipal 2,00 (modif. BOG 23.12.11)

**HIRI-LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA**

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA.**

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

#### I. DISPOSICIONES GENERALES

##### 1. artikulua.

##### Artículo 1.

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta zerga horri buruzko beren beregiko Foru Arauan ezarri denarekin bat, honako ordenantza honekin, hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko Zerga ezarri eta eskatu du; ehunekoen taula eta aplikatutako tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen atalak dira.

Este Ayuntamiento de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y en la Norma Foral particular del tributo, establece y exige el Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de naturaleza urbana con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen el cuadro de porcentajes y las tarifas aplicables.

##### 2. artikulua.

##### Artículo 2.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

#### II. ZERGA EGITATEA

#### II. HECHO IMPONIBLE

##### 3. artikulua.

##### Artículo 3.

1.- Zergapeko egitea da zergaldian hiri-lurren balioak izandako gehikuntza, katastroan edo zerga horren erroldan hiri-lur gisa jasota egon zein ez, lurren jabetza lur horien gainekoa den eta jabaria mugatzen duen eskubide erreal baten truke eskualdatzen denean.

1. Constituye el hecho imponible del Impuesto el incremento de valor que haya experimentado durante el período impositivo los terrenos que deban tener la consideración de urbanos a efectos del impuesto sobre Bienes Inmuebles, con independencia de que estén o no contemplados como tales en el catastro o en el Padrón de dicho Impuesto, cuya propiedad se transmita por cualquier título, o sobre los que se constituya o transmita cualquier derecho real de goce, limitativo del dominio.

2.- Xede horietarako, ondoko hauek izango dira hiri-lurrak:

2. A estos efectos, tendrán la consideración de terrenos de naturaleza urbana:

Hiri-lurzorua, urbanizagarria, urbanizagarri programatua edo urbanizagarri programatugabea, Hirigintza Jarduketako Programa bat onartzen denetik aurrera. Halaber, bide zoladuradunak edo espaloi zintaridunak dituzten lurrak hiri-lurreko ondasun higieziak joko dira, baldin eta, horiez gain, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren

El suelo urbano, el susceptible de urbanización, el urbanizable programado, o urbanizable no programado desde el momento en que se apruebe un Programa de Actuación Urbanística, los terrenos que dispongan de vías de pavimentación o encintado de aceras y cuenten además con alcantarillado, suministro de agua,

hornidura eta herriko argiak badituzte; orobat, hiri-eraikuntzak dauden lurak joko dira holakotzat.

Nekazaritzako legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurak ere honelakotzat hartuko dira, beti ere, zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen bada, eta, hala ere, haien landa-izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.

### III. LOTURARIK EZA

#### 4. artikulua.

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela -eta landa-lurtzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzazatik ez da honako zerga hau ordaintzen.

2. Hiri-lurren balio-gehikuntza ez da zerga honi lotuta egongo, eragiketa hauen ondoriozko eskualdaketen zioz lortu bada: bat-egiteak, zatiketak, aktibo-ekarpenak, balio-trukeak eta aktibo eta pasiboaren lagapen orokorrak, horiei Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezia aplikatzen bazaie. Salbuespen izango dira lur-ekarpenak, 7/1996 Foru Arauko 101. artikulua edo arau hori aldatzen duen arauaren babesean, jarduera-adar batean txertaturik daudenean.

Zerga honen ondorioetarako, landa izaerako ondasun higiezinak hartuko dira honako hauek:

Aurreko artikuluko 2. atalean xedatutakoarekin bat etorritik hirikotzat hartzen ez diren lurak.

### IV. SALBUESPENAK

#### 5. artikulua.

1. Zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoak, 4.2.e) artikuluan aurreikusten duen salbuespena aplikagarri zaien ondasun-eskualdaketak, baldin eta ondasun horien jabeek edo eskubide errealean titularrek frogatzen badute ondasun higiezin horiek artatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko obrak egin dituztela euren kontura.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da artatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko lanak udal lizentziarekin eginak izatea. Era berean beharrezkoa izango da aipaturiko lanak jabetza besterendu aurreko bi urteetan eginak izatea.

Ondorio horietarako, artatzeko, hobetzeko, edo birgaitzeko

suministro de energía eléctrica y alumbrado público y los ocupados por construcciones de naturaleza urbana.

Tendrán la misma consideración los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la Legislación Agraria, siempre que tal fraccionamiento desvirtúe su uso agrario, y sin que ello represente alteración alguna de la naturaleza rústica de los mismos a otros efectos que no sean los del presente impuesto.

### III. NO SUJECION

#### Artículo 4.

1. No está sujeto a este impuesto el incremento de valor que experimenten los terrenos que tengan la consideración de rústicos as efectos del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

2. No está sujeto a este Impuesto el incremento de valor que experimenten los terrenos de naturaleza urbana, con ocasión de las transmisiones derivadas de operaciones de fusiones, escisiones, aportaciones de activos, canje de valores y cesiones globales del activo y del pasivo, a las que se les aplica el régimen especial del Impuesto sobre Sociedades, salvo las aportaciones de terreno al amparo del artículo 101 de la Norma Foral 7/1996 o norma que la modifique, cuando no se hallen integradas en una rama de actividad.

A efectos de este impuesto, tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza rústica:

Los terrenos que no tengan la consideración de urbanos conforme a lo dispuesto en el n° 2 del artículo anterior.

### IV. EXENCIONES

#### Artículo 5.

1. Estarán exentos de este Impuesto los incrementos de valor que se manifiesten como consecuencia de los siguientes actos:

a) La constitución y transmisión de derechos de servidumbre.

b) Las transmisiones de bienes a los que resulte la aplicación de la exención prevista en el artículo 4.2.e) de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, cuando sus propietarios o titulares de derechos reales acrediten que han realizado a su cargo obras de conservación, mejora o rehabilitación en dichos inmuebles.

La efectividad de esta exención queda condicionada a que las obras de conservación, mejora o rehabilitación hubieran quedado efectivamente sujetas a licencia municipal. Asimismo, será preciso que las mencionadas obras se hubieran efectuado durante los 2 años anteriores a la enajenación.

A estos efectos, se entenderá por obras de conservación,

lanak direla ulertuko da eraikuntzak berregitea helburu dutenak, egitura, fatxada edota estalki eta antzekoak finkatuz eta tratatuz, betiere lanen kostua balio katastralaren %50ekoa baino gehiagokoa bada.

2. Halaber, balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude, zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsonak edo erakundeak direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Zerga ezartzen duen udalerrria, udalerrri horren parte diren edo izan daitezkeen gainerako udal entitateak, eta lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publiko entitateak.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Emakida administratibo itzulgarrien titularrak, emakidei atxikitako lurrei dagokienez.

f) Gurutze Gorria eta beronekin pareka daitezkeen beste entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak.

g) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortua duten pertsona edo entitateak.

## V. SUBJEKTU PASIBOAK

### 6. artikulua.

Ondokoak dira zerga honen subjektu pasiboak:

a) Irabazteko xedeekin lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen duen erakundea, edota eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Kostu bidez lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskualdatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen duen erakundea, edo eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.

mejora o rehabilitación las que tienen por objeto la reconstrucción de edificaciones mediante la consolidación y el tratamiento de las estructuras, fachadas o cubiertas y otras análogas siempre que el coste global de estas obras exceda del 50% del valor catastral.

2. Asimismo, estarán exentos de este Impuesto los correspondientes incrementos de valor cuando la obligación de satisfacer aquél recaiga sobre las siguientes personas o entidades:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter de las citadas Administraciones Públicas territoriales.

b) El Municipio de la imposición y demás Entidades Municipales integradas o en las que se integre dicho Municipio así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter de las citadas Administraciones Públicas.

c) Las instituciones que tengan la calificación de benéficas o de benéfico-docentes.

d) Las Entidades gestoras de la Seguridad Social y las Mutualidades de previsión social constituidas conforme a lo previsto en la legislación vigente.

e) Los titulares de concesiones administrativas revertibles respecto de los terrenos afectos a las mismas.

f) La Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determine.

g) Las personas o Entidades a cuyo favor se haya reconocido la exención en Tratados o Convenios Internacionales.

## V. SUJETOS PASIVOS

### Artículo 6.

1.- Es sujeto pasivo del Impuesto a título de contribuyente:

a) En las transmisiones de terrenos o en la constitución transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título lucrativo, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que adquiera el terreno la persona a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate.

b) En las transmisiones de terrenos o en la constitución o transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio a título oneroso, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria que transmita el terreno, o que constituya o transmita el derecho real de que se trate.

2.- Aurreko idatz-zatiko b) letrak aipatzen dituen balizkoetan, zergadunaren ordezkio subjektu pasibotzat joko da lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen duen erakundea, eta, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat bada, eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

## VI. ZERGA OINARRIA

### 7. artikulua.

1. Zerga honen oinarria hiri-lurren balioaren benetako gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

2. Aurreko lerrokan aipatutako benetako gehikuntza zenbatekoa den zehazteko, lurra sortzapen-egunean duen balioari I. Eranskinean jasota dagoen eskalako ehuneko aplikatuko zaio.

3. Artikulu honetako bigarren zenbakian adierazitako portzentajea zenbatekoa den zehazteko, ondoko arauak erabiliko dira:

Lehena.- Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio-gehikuntza, aipatutako gehikuntza agerian gertatu den urte-kopurua barruan hartzen dituen aldirako artikulu honetako 2. zenbakian ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da.

Bigarrena.- Sortzapen-unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balio-gehikuntza agerian jarri izan deneko urte-kopuruaz biderkatutako emaitza izango da.

Hirugarrena.- Lehenengo aruari jarraiki eragiketa zehatzei aplikatu ahal zaien urteko portzentajea zehazteko, eta, orobat, bigarren aruari jarraiki urteko portzentaje hori zenbat urtez biderkatu behar den finkatzeko, balio-gehikuntza izan den denboraldiko urte osoak zenbatuko dira soilik; beraz, ez dira kontuan izango urte-zatikak.

### 8. artikulua.

Hiri izaera duten lurren balioa handitzeagatik zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua aplikatuko da, hain zuzen, behin-behineko lehenengo xedapenaren 2-C atala.

### 9. artikulua.

1.- Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko edukie eskubide erreala eratzen eta eskualdatzen direnean, I. Eranskinean jasotako urte-portzentajeak, 7. artikuluan definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoretarako finkatuta dauden arauak ezarri, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.

2.-En los supuestos a que se refiere la letra b) del apartado anterior, tendrá la consideración de sujeto pasivo sustituto del contribuyente, la persona física o jurídica, o la entidad a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria que adquiera el terreno o a cuyo favor se constituya o transmita el derecho real de que se trate, cuando el contribuyente sea una persona física no residente en España.

## VI. BASE IMPONIBLE

### Artículo 7.

1. La base imponible de este impuesto estará constituida por el incremento real del valor de los terrenos de naturaleza urbana puesto de manifiesto en el momento del devengo y experimentado a lo largo de un periodo máximo de veinte años:

2. Para determinar el importe del incremento real se aplicará sobre el valor del terreno en el momento del devengo el porcentaje de la escala que se contiene en el Anexo.

3. Para determinar el porcentaje a que se refiere el número segundo de este artículo se aplicarán las reglas siguientes:

Primera.-- El incremento de valor de cada operación gravada por el Impuesto se determinará con arreglo al porcentaje anual establecido en el número 2 de este artículo para el periodo que comprenda el número de años a lo largo de los cuales se haya puesto de manifiesto dicho incremento.

Segunda.-- El porcentaje a aplicar sobre el valor del terreno en el momento del devengo será el resultante de multiplicar el porcentaje anual aplicable a cada caso concreto por el número de años a lo largo de los cuales se haya puesto de manifiesto el incremento del valor.

Tercera.-- Para determinar el porcentaje anual aplicable a cada operación concreta conforme a la regla primera, y para determinar el número de años por los que se ha de multiplicar dicho porcentaje anual, conforme a la regla segunda, solo se considerarán los años completos que integran el periodo de puesta de manifiesto del incremento del valor, sin que a tales efectos puedan considerarse las fracciones de años de dicho periodo.

### Artículo 8.

Se aplicará lo dispuesto en la Disposición Transitoria Primera, apartado 2-C de la Norma Foral 16/1989, de 5 de Julio del Impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de Naturaleza Urbana.

### Artículo 9.

1.- En la constitución y transmisión de derechos reales de goce limitativos del dominio, el cuadro de porcentajes anuales contenido en el Anexo, se aplicará sobre la parte del valor definido en el artículo 7 que representa, respecto del mismo el valor de los referidos derechos calculados mediante la aplicación de las

2. Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitze eskubidea eraten edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitze eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, urteko portzentajeen taula, 1. Eranskinean adierazi denak alegia, 7. artikuluan zehaztu den balio zehaztuaren atalean aplikatuko da, eta balioari eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzionaltasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

3. Derrigorrezko desjabetzapenetan, urteko portzentajeen taula, 1. Eranskinean ageri dena, balio justuaren zati bati aplikatuko zaio, hain zuzen, lurren balioari dagokion zatiari.

## VII. ZERGA KUOTA

### 10. artikulua.

Zerga honen kuota zerga-oinarriari eranskinean adierazi den karga-tasa aplikatuz sortuko da.

## VIII. ZERGAREN SORTZAPENA.

### 11. artikulua.

1. Zergaren sortzapena ondoko kasuetan gertatuko da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.

b) Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzten edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa- edo eskualdaketa-egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoreetarako, transmisioaren datatzat ondokoa hartuko da:

a) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo, lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotza-ziozko eskualdaketa, sortzailearen heriotza-data.

2. Epaileek edo Administrazioak ebazpen irmoaz deklaratu edo aitortzen badute lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratua deuseztatu, desegin edo amaitu dela, subjektu pasiboak eskubidea izango du berak ordaindutako zergaren itzulketa jasotzeko, baldin eta egintza edo kontratu horren irabazirik sortu ez badio eta itzulketa lau urteko epean erreklamatzeko badu ebazpena irmo bihurtu zenetik aurrera; irabazia egon dela ulertuko da justifikatzen ez denean interesatuek Kode Zibila 1295. artikuluan jasotakoaren arabera elkarri egin beharreko itzulketak gauzatu behar dituztela. Egintzak edo

normas fijas a efectos del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

2.-- En la constitución o transmisión del derecho a elevar una o más plantas sobre un edificio o terreno, o del derecho de realizar la construcción bajo suelo sin implicar la existencia de un derecho real de superficie, el cuadro de porcentajes anuales, contenido en el Anexo, se aplicará sobre la parte del valor definido en el artículo 7 que represente, respecto del mismo, el módulo de proporcionalidad fijado en la escritura de transmisión o, en su defecto, el que resulte de establecer la proporción entre la superficie o volumen de las plantas a construir en vuelo o subsuelo y la total superficie o volumen edificados una vez construidas aquéllas.

3.-- En los supuestos de expropiación forzosa, el cuadro de porcentajes anuales, contenido en el Anexo, se aplicará sobre la parte del justiprecio que corresponda al valor del terreno.

## VII. CUOTA TRIBUTARIA

### Artículo 10.

La cuota de este Impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

## VIII. DEVENGO DEL IMPUESTO

### Artículo 11.

1. El impuesto se devenga:

a) Cuando se transmita la propiedad del terreno, ya sea a título oneroso o gratuito, entre vivos o por causa de muerte, en la fecha de la transmisión.

b) Cuando se constituya o transmita cualquier derecho real de goce limitativo del dominio, en la fecha en que tenga lugar la constitución o transmisión.

A los efectos de lo dispuesto anteriormente, se tomará como fecha de la transmisión:

a) En los actos o contratos inter vivos la de otorgamiento del documento público, y, cuando se trate de documentos privados, la de incorporación o inscripción de éstos en un registro público o la de su entrega a un funcionario público por razón de su oficio.

b) En las transmisiones por causa de muerte, la del fallecimiento del causante.

2. Cuando se declare o reconozca judicial o administrativamente por resolución firme haber tenido lugar la nulidad, rescisión o resolución del acto o contrato determinante de la transmisión del terreno o de la constitución o transmisión del derecho real de goce sobre el mismo, el sujeto pasivo tendrá derecho a la devolución del impuesto satisfecho, siempre que dicho acto o contrato no le hubiere producido efectos lucrativos y que reclame la devolución en el plazo de cuatro años desde que la resolución quedó firme, entendiéndose que existe

kontratuak irabazirik sortarazi ez baina, desegitea edo amaiera zergaren subjektu pasiboak obligazioak ez betetzeagatik deklaratzeko bada, ez da itzulketa eskubiderik egongo.

3. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta egintza zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetzeko ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4. Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuaren, beraien kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, Zerga ez litzateke likidatuko harik eta beratu bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, Zerga exigitu egingo litzateke, noski baldintza betetzen denean aurreko ataleko erregelaren araberrako itzulketa egitearen erreserban.

## IX. KUDEAKETA

### 12. artikulua.

Subjektu pasiboek aitortpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina, eta eredu horrek likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak bilduko ditu. Aitorpen horretan zergari buruzko datuak eta beharrezkoak eta nahitaezkoak direnak ez ezik, kuota adieraziko da.

### 13. artikulua.

